



Teknologia burujabetzarako azpiegiturak

2025eko apirilaren 28an lezio argi bat ikasi genuen Hego Euskal Herrian. Handik urtebetera, “Piztu Alternatibak” ekimenaren aterkipean, prentsaurrekoa antolatu genuen hainbat eragileren eskutik gogoeta sakon bat mahai gaineratzeko: noren esku daude gure bizitzak sostengatzen dituzten oinarrizko azpiegiturak?

Gure bizitzak bizigarri egiteko eta gure beharrian oinarrizkoenak asetzeko azpiegitura kritikoak besteren esku utzi ditugu hamarkadetan. Espainiar eta frantziar estatuetan sektore estrategikoetan pribatizatzen eta merkatuaren esku uzten joan diren enpresa publikoen adibideak ugariak dira, bereziki joan den mende amaieran (Red Eléctrica-Redeia, Endesa, Électricité de France, Telefónica-Movistar, France Telecom-Orange... edota gurera etorrita, Euskaltel). Horren ondorioz, gaur egun erabaki estrategikoak herritarrengandik oso urrun hartzen dira, enpresa multinazional handien administrazio-kontseiluetan, eta metatze kapitalistaren logikari jarraituz. Oligopolio kapitalista eredu horrek ez du sinesten kontrol demokratikoan edo herritarren ekitate edo eskubideetan, etekin pribatuak areagotzea du helburu eta helburu horrek itsututa funtzionatzen du.

Mendekotasuna gainera ez da argindarrarekin edo telekomunikazioekin soilik gertatzen; sare eta azpiegitura kritikoak aipatzean, datu-zentroak ere sartu behar ditugu ekuazioan. Izan ere, gaur egun datuen sorrera eta erabilpena gure bizitzetako elementu zentral bilakatu da, hainbat eta hainbat arlotan ia ezinbesteko, sarri ohartzen ez bagara ere. Mezuak eta argazkiak bidaltzeko, gure telesail gogokoena ikusteko, adimen artifizialari galdera bat egiteko... datu mordoa kontsumitzen dugu, baina ez dezagun pentsa datuak aisialdirako baino erabiltzen ez ditugunik: datuak eta beren trataerak funtsezko tresna bihurtu dira osasungintzan, hezkuntzan, administrazio publikoan, lan-munduan... Gure bizitzako ia aspektu guztietan daude presente, oinarrizko eskubideak egikaritzeko beharrezko bilakatzeraino.

Eta datuak “hodeian” daudela entzuten dugun arren, *Hodeia ez da existitzen*, beste norbaiten ordenagailua da. Eta... fidatzen al gara beste norbait horrekin? Badakigu nola eta zertarako erabiltzen dituen gure datuak? Datuok bizitzak salbatzeko ikerkuntza aurreratua sustatzeko erabili daitezke, edo pertsonak zelatatzeke. Prozesu energetiko edota industrialak optimizatzeko erabili daitezke, baina baita gure ohitura eta joerak merkantilizatu, hirugarrenei saldu eta norbere burua aberasteko ere.

XIX. mende hasieran, Ingalaterran, “luddismoa” deritzon langile-mugimendua sortu zen. Ehungailu industrialak hondatu eta makinaren aurkako sabotaiak-ekintzak egiteagatik ezagun egin ziren, makinek beren lanpostuak suntsituko zituztelakoan. Orduetik, garapen teknologikoaren aurkako korrante antolatuei “luddita” deitu izan zaie.

Egia da zientzia eta teknologia ez direla ez neutroak ezta abstraktuak ere. Gaur egungo eremuan teknologia eta datuen jabe direnek dute tresna teknologikoen kontrola, eta beren erabilpen hedatuak beraiei egiten die mesede, erraldoi teknologikoen boterea egunez egun handituz. Egoera honen aurrean, ordea, ez litzateke zentzuzkoa — ezta eraginkorra ere — posizio neo-luddita bat hartzea eta aurrerapen teknologikoei uko egitea; aurrerapenak badatoz eta ez dago hauek gelditzeko modurik. Kontrara, ordea, tekno-positibismo itsuan erortzea ere akats handia litzateke, teknologia berri horien erabilpena ikuspuntu kritiko batetik aztertu gabe.

Ezinbestekoa dugu guztionak izan beharko luketen oinarritzko ondasunen gaineko burujabetza berreskuratzea, sare deszentralizatu eta demokratikoagoak sortuz eta elkar konektatutako herri alternatiba iraunkorrak piztuz. Zenbait herri-proiektuk egunero frogatzen duten moduan, energia edo komunikaziorako teknologiak kudeatu daitezke justizia soziala, iraunkortasuna eta parte-hartze demokratikoa ardatz hartuta.

Gure erronka geure burua ahalduntzea da, teknologia berriak ulertzen eta erabiltzen trebatzea, eta giza-eskubideak, jasangarritasuna, gardentasuna, segurtasuna, pribatutasuna, demokrazia eta boterearen birbanaketa bezalako kontzeptuak aintzat izango dituzten teknologia-praktikak sustatzea.

Eta bataila hau eskala guztietan eman beharra daukagu. Herritarrok, erakunde publikoek eta ehun sozioekonomiko eta kooperatiboak indarrak batu behar ditugu eraldaketa teknologikoa eta ekosoziala bultzatzeko. Jakitun gara borroka honek eskala ezberdinak dituela, eta eskala bakoitzak bere mugak dituela. Baina Amerikako Estatu Batuen eta kapital handiaren kolonia digitala izateari utzi nahi badiogu, bederen, ezin dugu etsipenean erori, eskala guztietan antolatu beharra daukagu.

Jada badira *software* pribatiboari eta erraldoi teknologikoei aurre egiten hasi zaizkien erakundeak. Badira *Microsoft*-i uko egin dioten udal handiak Alemania, Danimarka eta Frantzia. Frantziako Gobernuak ere zenbait neurri hartu ditu *software* libre eta burujabetzaren alde. Esaterako, administrazio publikoko ordenagailu guztiak, milioika, *Windows* sistema-eragiletik *Linux*-era migratzeko zuzentaraua argitaratu du, eta bere langileei agindu die bideo-deietarako *Zoom* eta *Teams* erabiltzeari utzi eta Frantzia garatutako *Visio* kode irekiko aplikazioa erabiltzeko. Frantziako Hezkuntza Ministerioak ere burujabetza teknologikoaren aldeko apustua egin du *software* libre eta lokalak hobetsiz eta ikasleen pribatutasuna urratzen duten erraldoi teknologiko estatubatuarren tresnak baztertuz.

Baina estatu eta udal-mailatik haratago, badago zer eginik herri mugimendu, sindikatu eta alderdietan ere. Aukeratzen dugun hornitzailetik hasita, erabiltzen dugun *software* edo *hardware*-etik jarraituta, eta elikatzen dugun adimen artifizial eredia ere kontuan hartuta. Baina batez ere, berrikuntza teknologikoen aurrean jarrera pasiboa alboratu eta kritikotasunez eta zorrotztasunez jokatu.

Elkarren beharra dugu eraldaketa eko-sozial eta teknologikoaren bidean aurrera egiteko. Izan ere, hurrengo itzalaldian ez gaitu enpresa multinazionalen irabazi goseak babestuko, komunitatean jositako sare

sendoek baizik. Baina egitura komunitario horiek sortu eta babesteko premiazkoa da gure kontsumo-ohiturak ikuspegi kritiko batetik aztertzeak hasi eta eztabaida irekitzea. Zer eredu nahiago dugu? “Erabili eta bota” ala “Erein, zaindu eta jaso”?

Evgeny Morozov pentsalari eta ikerlari bielorrusiarrak dio Interneten sorreran bataila handi bat galdu genuela. Aukera izan genuela Internet sare deszentralizatu eta demokratikoago bat sortzeko, baina azkenean korporazio erraldoien menpeko sarea eraiki genuela. Beraien esku utzi genuen Interneten kontrola, eta bigilantziarako, merkantilizatorako eta polarizatorako tresna bilakatu zen.

Goazen beraz, egungo bataila borrokatzera, berandu baino lehen. Uneoro, nonahi, eta esparru guztietan. Gramsci-k zioen bezala:

*“Formatu zaitezte, gure inteligentzia guztia beharko dugu eta.
Hunkitu zaitezte, gure ilusio guztia beharko dugu eta.
Antolatu zaitezte, gure indar guztia beharko dugu eta.”*

Euskal Herrian, 2026ko ekainean